

**2008KO IRAILAREN 16AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA:Hamaseia

HILABETEA: Iraila

URTEA: Bi mila eta zortzi

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Jon Kortaberria Lasa
Fernando Boada González
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2008ko uztailaren 29ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- OBRAK LIZITATZEA

Hirigintza batzordeak proposatuta aho batez onartu da ondorengo obrak lizitatzea:

Lehenik. Igartza Oleta kalean espaloiak berritzeko obrak (II fasea) kontratatzeke Toledo Taldeak egindako proiektua eta horretarako behar den baldintza plegua onartzea..

Bigarren.- Aipatutako obrak lehiaketa bidez kontratatzeke deialdi publikoa egitea.

1.- Xedea: Igartza Oleta kalean espaloiak berritzeko obrak (II fasea) kontratatzea.

2.- Kontratatzeke era eta prozedura: Lehiaketa irekia eta prozedura arrunta.

3.- Lizitazio prezioa: 280.151,95 €, BEZ barne.

4.- Enpresa sailkapena: A taldea, 2. Azpitaldea, c maila
E taldea, 1. Azpitaldea, c maila
G taldea, 4. Azpitaldea, c maila
I taldea, 1. Azpitaldea, c maila

5.- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

6.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %5a.

7.- Egikaritze epea: 3 hilabete.

8.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Plikak irekitzeko ekintza Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lanegunean 13:00etan. Larunbata tokatuko balitz, hurrengo lanegunera pasatuko da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailiek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

3.- OBRAK ESLEITZEA

a.- Hilerrian hilobiak birmoldatzeko obrak esleitzea

2008ko irailaren 8an kontratazio-mahaiak egindako proposamenaren berri eman da:

“2008ko uztailaren 29an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen, hilerrian hilobiak birmoldatzeko obrak prozedura negoziatuen bitartez kontratatzea.

Gonbidapena 5 enpresei bidali zitzaien, baina horietako batek prozeduran parte hartzen interesatuta ez zegoela adierazi zuen eta beste enpresa baten gonbidapena berriz, bueltan etorri zen entregatu gabe.

Beraz zerbitzu buruak egindako balorazioaren arabera, aurkeztutako enpresen balorazioa honako hau da:

| ESKAITZEN AZTERKETA | | | | | | | | | | | | | | |
|---------------------|------------|------------------------|--------------|--------------------------|---------------------------|--------------------|---------------|----------------|-------------------------|-------------------|-------|------------|-----------|--------|
| LIZITAZIOA | | ESKAITZAK | | | | | | | PUNTUAZIOA / PUNTUACIÓN | | | | | |
| Aurrekontua | Epea | KONTRATISTA | Proposamenak | Epea | Bataz besteko proposamena | Bataz besteko baja | Baja mugak | Baja eskaintza | Prezioa | Obraren azterketa | Epeak | Pertsonala | Makinaria | GUZTIR |
| 166.295,63 € | 2 hilabete | Excavaciones Gabilondo | 160.705,87 € | 6 aste (30 lan egun) | 160.290,57 € | 3,61 | -6,39 / 13,61 | 3,36 | 62,57 | 10 | 10 | 4 | 5 | 91,57 |
| | | Cnes. Oriako | 155.766,81 € | 45 egun (33 lan egun) | | | | 6,33 | 70 | 1 | 4,5 | 5 | 5 | 85,5 |
| | | Cnes. Iturriotz | 164.399,04 € | 2 hilabete (42 lan egun) | | | | 1,14 | 57,02 | 10 | 0 | 5 | 5 | 77,02 |

Horren ondorioz, kontratazio mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Hilerrian hilobiak birmoldatzeko obrak, EXCAVACIONES GABILONDOren alde behin-behineko esleipena egitea, 160.705,87 €ko prezioan, BEZ barne. Egikaritze epea, berak egindako eskaintzaren arabera, 6 astekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunak 8.035,29 €ko behin betiko fidantza aurkezten duenean behin betiko esleipena egingo da. Behin betiko fidantza, behi-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean aurkeztuko da.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

b.- Udaltzaingorako aldagelak egokitzeko obrak esleitzea

2008ko uztailaren 29an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen, udaltzaingorako aldagelak egokitzeko obrak prozedura negoziatuen bitartez kontratatzea.

Gonbidapena jarraian aipatzen diren enpresei bidali zitzairen eta horietatik bi enpresa, hain zuzen ere, CONSTRUCCIONES ORIAKO eta BARANDIARAN ZERAMIKAK, lizitaziotik kanpo gelditu dira. Lehenengoa, eskaintako prezioa, lizitazioarena baino handiagoa delako eta bigarrena berriz, proposamen ekonomiko-ereduaren orria aurkeztu ez duelako eta egikaritze epea eskatzen zena baino handiagoa proposatzen duelako.

2008ko irailaren 13ko datarekin udal aparejadoreak txostena eman du, adieraziz aurkeztutako enpresen balorazioa ondorengo dela:

| ESTUDIO DE VALORACION OFERTAS VESTUARIOS POLICIA MUNICIPAL | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|---------|----------------------|---------------------|-------|-----------------|------------|--------------|-------------|--------|--------------|--------|-------------------|------------|--------|--|
| LICITACION | | OFERTANTES | | | | | | PUNTUACION | | | | | | | |
| Importe | Plazo | CONTRATISTA | Propuesta Económica | Plazo | Propuesta Media | Baja Media | Limites Baja | Baja Oferta | Precio | Estudio Obra | Plazos | Personal Asignado | Maquinaria | TOTAL | |
| 182.504,40 | 3 MESES | Cnes URBYCOLAN SL | 160.912,78 | 2,21 | 169.059,34 | 7,37 | 0 - 17,37 | 11,83 | 70,00 | 10,00 | 10 | 5 | 5 | 100,00 | |
| | | Cnes IKENA 2001 | 163.459,15 | 2,74 | | | | 10,44 | 66,51 | 0,00 | 3,291 | 0 | 0 | 69,80 | |
| | | Cnes KOLDO KEREJETA | 175.333,20 | 3 | | | | 3,93 | 50,25 | 0,00 | 0 | 1 | 1 | 52,25 | |
| | | Cnes ITURRIOZ | 176.532,23 | 2,5 | | | | 3,27 | 48,60 | 5,00 | 6,329 | 5 | 5 | 69,93 | |
| | | | | | | | | | | | | | | | |
| | | Cnes ORIAKO | 182.508,38 | 2,5 | | | | | | | | | | | |
| | | BARANDIARAN ZERAMIKA | 177.896,14 | 3,43 | | | | | | | | | | | |

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Udaltzaingorako aldagelak egokitzeko obrak, CONSTRUCCIONES URBYCOLAN, S.L. ren alde behin behineko esleipena egitea, 160.912,78 €ko, prezioan, BEZ kontutan izan gabe. Egikaritze epea, berak egindako eskaintzaren arabera, 2,21 hilabetekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunak 8.045,64 €ko behin betiko fidantza aurkezten duenean behin betiko esleipena egingo da. Behin betiko fidantza, behi-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean aurkeztuko da.

4.- ZERBITZUAK ESLEITZEA. J. M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak esleitzea.

2008ko martxoaren 18ko datarekin, Gobernu Batzordeak erabaki zuen J. M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak kontratatzea.

Deialdia, 2008ko apirilaren 14an GAOean argitaratu zen. Lizitazio prezioa, 55.466,30 €koa zen (BEZ barne) eta egikaritze epea, 2 urtekoa.

Eskaintzak aurkezteko epea 2008ko apirilaren 29an amaitzen eta epe horretan, ELIXABETE MANTEROLA TELLERIA andreak sinatutako eta J. R. Diaz de Acebedo Alberdi jaunak AYTASaren ordezkari sinatutako eskaintzak aurkeztu ziren.

Lehenengoak aurkeztutako eskaintza, 52.692 €koa da, bigarrenarena berriz, 52.692, 98 €koa. Bi proposamenak lizitazio prezioarekiko %5eko baja suposatzen dute. Beraz, baldintza pleguko 13. artikulua arabera, atal honetan biak puntuazio gehiena eta berdina lortu dute.

Bigarren esleipen-irizpideari buruz, hau da, bitartekotza, kontzilio, arbitraje eta negoziatioetan egiaztatutako eskarmentuan, bi lizitatuzaileen artean dagoen diferentzia nabarmena da.

Lehenengoak, talde lanetan, datu-bilketan, txostenak egiten, familiek dituzten behar-emozionalak baloratze-lanetan, eskarmentua du. Bigarrenengoak aldiz, esperientzia handia kreditatzen du kontratuaren helburuarekin lotura duen garatze-lanetan.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. J. M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak, AYTASARI esleitzea, 52.692,98 €tan (BEZ barne). Esleipena baldintza plegua eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da. Egikaritze epea, 2 hilabetekoa izango da kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarren. Erabaki honen berri lizitatuzaileei ematea, eta bereziki adjudikaziodunari adieraztea hamabost eguneko epean erabakia jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 2.107,72€ko behin betiko fidantza aurkeztu beharko duela jarraian kontratu administratiboa sinatu ahal izateko.

5.- LUDOTEKA ETA GAZTEGUNE. Ludoteka eta gazteguneko kontratua luzatzea.

Ondorengoa ezagutzera ematen da:

“2006ko irailaren 13an egindako Gobernu Batzordeak erabaki zuen Maialen Hernandez Irastorza eta Eider Garmendia Urretabizkaia, PUXTARRI AISI TALDEA osatzen duen ondasun erkidegoari, Berritxu eta Txelotxe ludoteka eta gazteguneko zerbitzuen kudeaketa esleitzea.

Kontratua ikasturte-baterako egin bazen ere, hau da, 2006ko irailaren 18tik 2007ko ekainaren 30a bitarte, bere garaian onartutako baldintza pleguaren arabera luzagarria da eta gehienez ere hiru urtean luzatu ahal izango da. Kontratua amaituta dagoenez, Gobernu Batzordeak 2007ko irailaren 18an, euskarazko teknikariak aldeko txostena eginda, erabaki zuen kontratua beste urtebeterako luzatzea, aurreko kontratuaren prezioei PKI aplikatuz. Kontratu honen epea amaitu eta gero, berriro ere euskarazko teknikariak 2008ko irailaren 12ko datarekin luzatzearen aldeko txostena eman du.”

Horren ondorioz, aho batez ondorengoa erabaki da:

Lehenik. PUXTARRI AISIALDI TALDEAK, Berritsu eta Txelotxe ludoteken nahiz gaztegunearen zerbitzuak emateko, Beasaingo Udalarekin sinatua duen kontratua luzatzea, iraupena 2008ko irailaren 15etik 2009ko ekainaren 30era bitarte izango delarik.

Bigarren. Beasaingo Udalak PUXTARRI AISIALDI TALDEAri aipatutako zerbitzua emateagatik, 78.623,29 € ordainduko dio.

Hirugarren. Beste estipulazioak ez dira aldatzen eta horren ondorioz, indarrean jarraitzen dute.

6.- INFORMAZIOA

Atal honetan Alkateak ondorengo gaiei buruzko informazioa eman du:

- Agente Lehenari buruzko bi plazak hornitzeko azterketak egiten ari dira.
- Denbora gutxi barru udazken kulturalari hasiera emango zaio.
- Adimen zentroa, urriaren 6an irekiko da. Kudeatuko duena, Aitamendi izango da.
- Udal aldizkariaren lehenengo zenbakia, urrian argitaratuko da. Bertan emakumearen arloa bereziki aztertuko da.
- Anbulategiko biribilguneko obrak hilabete barru hasiko dira. Irailaren amaieran obrak esleituko dira.
- Urriaren 2an berriro ere, udalbatza osoa izango da, hainbat gai tratatu eta erabakitzeke daudelako.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta, nik idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.